



BBK EKIN 2026 programa

DEIALDIAREN OINARRIAK

- 1. Nor gara**
- 2. Programaren Helburuak**
- 3. Nori dago zuzenduta?**
- 4. Zelan parte hartu programan?**
- 5. Proiektuen hasierako hautaketa**
- 6. Programaren faseak eta edukiak**
- 7. Demo Day-rako proiektu finalisten hautaketa**
- 8. Proiektu onenen sariak**
- 9. Pertsona hautatuen konpromisoak programarekin**
- 10. Programaren konpromisoak pertsona hautatuekin**
- 11. Konfidentzialtasuna eta jabetza intelektualaren eskubideak**
- 12. Lege-alderdiak**
- 13. Kontaktua**

1. NOR GARA

BBK-k mende bat baino gehiago darama Bizkaiko **ekonomiaren garapenari eta gizartearen kohesioari** laguntzen. Gure Gizarte Ekintzak talentua eta ekintzailtza sustatzeko baliabideak ditu, eta urtero milaka pertsonak parte hartzen dute eta etekina ateratzen diete enpresak eratu eta sortzera bideratutako BBKren programei.

BBK-k lider izan gura du Bizkaian **gizarte-ekintzailtzako eta inpaktu-inbertsioko ekosistema** bat, Garapen Jasangarrirako Helburuetan oinarritua, sortzen.

Nazio Batuen arabera, urtean 2,5 bilioi dolar behar dira munduan, Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko behar diren 6 bilioi dolarretara iristeko.

Beharizan horri aurre egiteko, erantzun ausarta sortu da mundu osoan, gure gizartearen arazo sozial eta ingurumen-arazoak konpontzeko tresna berritzaileak erabiltzen dituenak: gizarte-berrikuntza eta ekintzaile, enpresa eta inpaktuko inbertitzaileak, sistema ekonomikoa ekonomia jasangarriagorantz eraldatzea bilatzen dutenak. Orain arte, inbertsioak errentagarritasun/arrisku binomioaren arabera egin dira. Eta gaur egun, inpaktuko inbertsioak ikuspegi berri bat proposatzen du, non inbertsio-erabakiak errentagarritasun/arrisku/inpaktu trinomioaren arabera hartzen diren.

BBK-k aktiboki lan edo behar egiten du errentagarritasun/arrisku/inpaktu trinomio horrekin inbertitzaile izatea ardatz hartuta, horiek adierazten baitute guk indartu gura dugun enpresa-eredua; horretarako, estrategia zabal bat diseinatu dugu, gizarte-berrikuntzatik eta herritarrak kontzientziazetik gizarte-ekintzailtzako programak garatzeraino doana.

Planeta bakar baten parte gara, eta, komunitate global gisa, erronka horiei aurre egitea dugu helburu, NBEren 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen bidez.

BBKtik helburu horiek lortzen lagundu gura dugu gure programen, gure sare globalaren eta gure inbertsioen bidez. Horren haritik, gizarte-ekintzaileei laguntzea ondo mugarritutako lau fase dituen prozesu gisa ulertzen dugu: **inspiratzea, bultzatzea, bizkortzea eta inbertitzea**, eta inpaktua maximizatzea eta lehiakortasun jasangarrian oinarritutako negozio-ereduak sortzea lortzen duten programak txertatzen ditugu horietan.

- **Inspiratzea:** Lurraldean inpaktu sozial edo gizarte-eragin positiboa sortzen duten ideia, joera eta irtenbideekin inspiratzea da gure asmoa. Herritarrak ahalduntzen ditugu eta gizarte-inpaktu positiboko etorkizunak ikusten ditugu.
- **Bultzatzea:** Gizarte-aldaketa sustatzen duten ideiei negozio-eredu bat emateko baldintzak sortzen laguntzen dugu. Enpresak martxan jartzea, beraien negozio-eredu eta iraunkortasunerako oinarri sendoak sortuz bere etorkizuneko eskalagarritasunerako.
- **Bizkortzea:** Gure lurraldean eta nazioartean garatzeko ahalmena duten enpresak eta gizarte-proiektuak azeleratzen ditugu. Beste eragile garrantzitsu batzuekin konektatzen dugu negozio-eredua eskalatzeko.
- **Inbertitzea:** Baliabide ekonomikoak lortzen laguntzen dugu, eta gizarte-inpaktu eta eskalagarritasun handiko enpresa finkatuei laguntzen diegu.

BBK Ekin gizarte-ekintzaileentzako inkubazio-programa da, gizarte-inpaktu positiboa duen negozio bat garatuz, eta amaitzean, hiru proiektu onenek oinarri hauetako zortzi atalean adierazten diren sari ekonomikoekin jasoko dute.

BBK Ekinen inpaktua handitu edo eskalatu gura du BBK-k 4. edizio honetan; hazkunde ekonomikorako aukerak sortzen dituzten eta Bizkaian gizarte-berrikuntzaren garapena sustatzen duten gizarte-ekintzailetzako 25 proiekturi laguntzeko programa da BBK Ekin.

BBK Ekinen parte hartzeko hautatutako proiektuek inkubazio-programa oso baten parte izango dira, eta hor beren gizarte-enpresa egituratu eta baliozkotu ahal izango dute, ingurunean eragin edo inpaktua izango duen negozio jasagarri bat sortzeko helburuarekin. Gainera, aurrez aurreko nertwotking saioak eta workshopak izango dituzte adituekin, enpresaren kultura definitu eta hazarazteko eta inbertitzaileen aurrean prestatuta egoteko. Gainera, hiru proiektu onenen artean badaude, 10.000 €-rainoko saria jaso ahal izango dute.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK

Ekimen honek **eragin soziala duten eta hasierako faseetan dauden proiektuak** aurkezten dituzten startupek laguntzen die, eta inpaktua eskalatze edo handitzea planteatzen du, Bizkaian berrikuntza soziala garatzeko etengabeko aukerak sortuz, ekintzaileei beren **negozio-eredua baliozkotzen eta funtsak erakartzeko prestatzen** lagunduz.

Gure helburuak asmo handikoak dira:

- BBK-k Bizkaian ekintzailetzarekin duen konpromisoan beste urrats bat ematea.
- Ekintzailetzarako laguntza integralean Bizkaia Europa mailako erreferente bihurtzea.
- Konpromiso sozial batekin garapena eta enplegua sortzen duten enpresak eratzen laguntzea.
- Gizarte-ekintzaileei laguntzea, Bizkaiko eta munduko erronkei irtenbideak emango dizkieten proiektu jasagarriak sor ditzaten, baita eragin edo inpaktu iraunkorra ere.
- Tresna aurreratuak doan ematea hasierako faseetan dauden ekintzaileei.
- Gizarte-ekintzaileen komunitate zabal eta inklusiboa sortzea BBKren inguruan
- Ekintzaile-komunitate global batera sarbidea ematea Bizkaiko gizarte-ekintzaileei.
- Ekosistema ekintzailea BBK-ko langile eta laguntzaileei hurbiltzea, programan aholkulari gisa parte hartuz.
- Gizarte-ekintzaileek 2030 Agenda lortzeko egiten duten ekarpena ikusarazten laguntzea.

3. NORI DAGO ZUZENDUTA?

Beren proiektuei ekiteko ahalik eta laguntza handiena jaso gura duten ekintzaileak bilatzen ditugu, ezaugarri hauekin:

- Edozein jarduera-sektoretan merkatuko enpresa-proiektuak izan behar dute, bideragarriak eta arrakasta izan dezaketenak.
- Hazkunde-aurreko fasean (idea, kontzeptua, proiektua, ETEa edo startupa) egongo dira, oraindik funtzionamenduan ez daudenak edo merkataritza-eraketa dutenak, baina jarduera barik.

- Bizkaian kokatutako proiektuak, tokiko eta/edo nazioarteko proiektzioa dutenak.
- Osagai sozialarekin, ezinbestekoa den zerbait BBKren DNAn.
- Bizkaian enplegua, berrikuntza eta oparotasuna sortzeko edo gizartearen erronkei hobeto erantzuteko helburuak izan behar dituzte, hala nola biztanleriaren adina gehitzea edo gazteei laguntzea, ingurumenaren zaintza eta jasangarritasuna, hezkuntza sustatzea edo informaziorako sarbidea, etab.
- Sustatzaileek Interneterako sarbide erregularra eta egonkorra izan behar dute nabigatzaile hauetako bat duen ordenagailuan: Google Chrome, Firefox edo Safari.
- Talde sustatzaileko kide guztiek adinez nagusiak izan behar dute.

4. ZELAN PARTE HARTU PROGRAMAN?

BBK EKIN programan parte hartzeko interesa duten proiektuek [BBKren web-orriaren](#) bidez bete beharko dute eskaera, eta bertan, plataformara sartu eta urrats errazak eginez erregistratu ahal izango dira. Inprimakiak, besteak beste, eskatzailearen datuak, esperientzia profesionala, prestakuntza, proiektuari buruzko informazioa (misioa, mugarriak, desberdintze-faktoreak, negozio-eredu potentziala, gizarte-inpaktua eta taldea) jasoko ditu.

Ezinbestekoa izango da sustatzaileek Interneterako sarbide erregularra eta egonkorra izatea nabigatzaile hauetako bat duen ordenagailu batean: Google Chrome, Firefox edo Safari.

Eskaerak aurkezteko lehen deialdia **2025eko azaroaren 4ko 09:00etatik abenduaren 17ko 23:59ra egongo da zabalik**. Ez da onartuko epe horretatik kanpo aurkezten den proiekturik.

5. PROIEKTUEN HASIERAKO HAUTAKETA

BBK Ekineko Hautaketa Batzordeak ebaluatuko eta hautatuko ditu proiektuak, BBK-ko eta Bridge for billions-eko taldeak osatuta.

Deialdia itxi ondoren, Hautaketa Batzordeak hurrengo fasera igaroko diren 25 proiektuak hautatuko ditu, eta hautatutakoei zein hautatu gabekoei jakinaraziko zaizkie, **2025eko abenduaren 23a baino lehen**, posta elektronikoaren bidez.

Hautatzeko irizpideak:

1) **Eragin sozial potentziala**

Lehentasuna ematen zaie gizarte- eta/edo ingurumen-erronkak konponduz eragin positiboa duten proiektuei Bizkaian.

2) **Negozio-eredua**

Proiektuek ekonomikoki bideragarriak izan beharko dute, logika eta egiantzekotasuna aurkeztuz eskaintzen diren ikuspegi ekonomiko-finantzarioetan.

3) **Berrikuntza**

Kontuan hartuko dira originaltasuna eta berrikuntza-maila, bai eta proiektuaren ideia- zehaztasun-maila ere.

4) **Eskalagarritasuna/Erreplikagarritasuna**

Proiektuek hazkunde-potentziala eta merkatu-aukera izan beharko dute, bai eta epe ertainera enplegua sortzeko potentziala ere.

5) **Taldea**

Kideek ondo kohesionatutako taldea osatu beharko dute, eta, alde batetik, gauzatzeko gaitasuna izan beharko dute, eta, bestetik, komunikatzeko gaitasuna.

6. PROGRAMAREN FASEAK ETA EDUKIAK

BBK EKIN programak urtean deialdi bakarra izango du, eta 25 proiektuk parte hartuko dute. Sei hilabeteko iraupena izango du, deialdia egin, abian jarri, inkubazio-prozesua eta itxierako ekitaldiak barne.

-Deialdia egin eta hautaketa (2 hilabete)

-Inkubazio Programa (4 hilabete)

- Inkubazio-plataformara sartzea
- Mentoretzak (online)
- Prestakuntza-saioak eta tailerrak adituekin (online)
- Komunitateko jarduerak (aurrez aurrekoak eta online)
- Demo Day eta Sariak (aurrez aurrekoa)

Inkubazio-programaren edukiak:

Programak zortzi modulu izango ditu: oinarri berritzailea duten ekintzaitza-metodologiak jarraituko dituzte, eta ekintzaileak urratsez urrats eta arin beren ideiak egituratzera eta beren negozioarako ekintza-plan bat argi eta garbi definitzera eramateko diseinatuta daude. Moduluak funtsezko definizioak, adibideak, tutorialak eta baliabide gehigarriak dituzte, ideiak desafiatzen eta haien aukerak ebaluatzen laguntzeko.

Gainera, ordu eta laurdeneko zortzi saio eskaintzen ditugu, profesional adituek emandako zortzi inkubazio-moduluetako bakoitzean ekintzaileekin sakontzeko.

Zortzi moduluak honako hauek dira:

- **Balio-proposamena.** Konpontzen ari diren arazoa, merkatuko aukerak, bezeroen beharrianak eta beren produktuaren onurak ulertzen dituzte ekintzaileek.
- **Lehiakideen mapa.** Ekintzaileek beren eskaintzaren indarguneak eta ahuleziak identifikatzen dituzte, baita ere lehiakideengandik zelan nabarmendu eta nola aurkitu lehiarako benetako abantaila.
- **Bazkide estrategikoen mapa.** Ekintzaileek beren negozioa abiarazteko behar dituzten bazkideak identifikatzen dituzte eta bazkide-sareen eta banaketa-kanalen mapa sortzen dute.
- **Negozio-eredua & marketina.** Ekintzaileek funtsezko jardueren ideia argia dute beren negozioa hazteko eta bezeroak zelan erakarri eta itzularazi ikasten dute.
- **Proiektuaren prezioa eta bideragarritasuna.** Beren bezeroak erakartzearen kostuak ulertzen dituzte ekintzaileek eta prezio hoberena aurkitzen dute, horrek eragingo duelarik negozioa finantzarioki bideragarria izatea.
- **Finantza-proiektzioak.** Ekintzaileek beren kostuak eta diru-sarrerak identifikatzen ikasten dute, hainbat finantza-agertoki gauzatzen dituzte eta oreka-puntura noiz iritsiko diren zehazten dute.
- **Inpaktu-plana.** Merkatuaren testuinguru orokorrean zelan egokitzen diren ikusten dute ekintzaileek, beren misioa eta ikuspegia definitzen dituzte, gura duten gizarte-eragin edo inpaktu soziala determinatzen dute eta zehazki neurtzen ikasten dute.
- **Hazkunde-plana.** Ekintzaileek hazkunde-plan bideragarri bat eraikitzen dute, datozen 3 urteetarako helburuak ezartzen dituzte, arriskuak aurreikusten dituzte eta beti prest egoteko arintze-estrategiak definitzen dituzte.

Inkubazioaren lau hilabeteetan, plataformaren edukiekin batera, honako ekitaldi eta jarduera hauek garatuko dira:

Abiarazteko ekitaldia

Ekintzaileei ongietorri beroa egingo zaie programara, zer ikasi eta lortuko duten gogoraraziko zaie, programaren faseen ikuspegi orokorra jasoko dute eta ibilbide bat haren xehetasunetan barrena, ziurtatzeko mundu guztia bat datorrela edo ildo berean dagoela eta badakiela zer dagoen bere eskura eta zer espero den beraiengandik.

Networking saioak

Ekintzaileak eta/edo mentoreak gonbidatuko dira programan zehar aurrez aurreko 3-4 saiotan (eta/edo hibridotan) parte hartzera, parte-hartzaileek beren artean fisikoki konektatu, sinergiak aztertu eta ikaskuntzak partekatu ahal izan ditzaten.

Checkpoint saioak

Gainera, ordu eta laurdeneko zortzi saio eskaintzen ditugu, gure adituetako batek emandako inkubazio-moduluetako bakoitzean ekintzaileekin sakontzeko. Horrek laguntza-geruza gehigarri bat emango die ekintzaileei, eta bertan modulu bakoitzari buruzko ezagutza sakona eta ikaskideekin harremanetan jartzeko aukera bat jasoko dute.

Adituen tailerrak

Askotariko gai eta arlotan adituak diren hizlariekin osatuko dugu programa, ekintzaileen esperientziei balio gehigarria emateko.

Demo Day eta sariak

Azken ekitaldi horretan, hautatutako ekintzaileak gonbidatuko dira beren proiektuak epaimahai baten aurrean aurkeztera. Hiru (3) proiektu irabazle aukeratuko dira eta sariak banatuko dira.

7. DEMO DAY-RAKO PROIEKTU FINALISTEN HAUTAKETA

Hautaketa Batzordea arduratuko da parte hartzen duen proiektu bakoitzaren aurrerapenaren eta konpromisoaren jarraipena egiteaz eta ebaluatzeaz, bai eta aprobetxamendu-maila ebaluatzeaz ere. Irizpide horien arabera hautatuko dira Demo Day ekitaldian **epaimahai** baten aurrean aurkeztuko diren 10-12 proiektu finalistak, non hiru sarietako bat eskuratu ahal izango duten.

8. PROIEKTU ONENEN SARIAK

Azken egunean, aurrez aurre, Demo Day ospatuko da. Bertan, hautatutako ekintzaileak gonbidatuko dira beren proiektuak epaimahaiaren aurrean aurkez ditzaten (10 - 12 bitartean). Epaimahaia BBK-ko eta Bridge for billions-eko kideek osatuko dute, eta ekosistemako eragileekin zabaldu ahal izango da. Epaimahai horrek zehaztuko du zein izango diren hiru proiektu onenen sariak irabaziko dituztenak, honako irizpide hauen arabera:

- Lehenengo hautaketan kontuan hartutako alderdi guztiak (Gizarte-Eragina, Negozio-Eredua, Berrikuntza, Eskalagarritasuna/Erreplikagarritasuna eta Ekipoa).
- Proiektuaren aurkezpena (komunikazioa eta argitasuna azalpenean)
- Parte-hartzaileen nortasun ekintzailea.

Sariei dagokienez, **hiru sari** planteatu dira hiru proiektu finalistentzat, eta horiek adituen epaimahai batek aukeratuko ditu:

- 1. saria: 10.000 €
- 2. saria: 5.000 €
- 3. saria: 2.500 €

Sariak pertsona juridikoei emango zaizkie; beraz, proiektu irabazleek, nahitaez, enpresa gisa eratuta egon beharko dute, saria jaso ahal izateko. Sariaren zenbateko osoa proiektua garatzeko erabiliko da, eta saritutako proiektua titular duen Kutxabankekoko kontu zenbaki batean ordainduko da. Beharrezkoa izango da BBKren eta saritutako proiektuen sustatzaileen artean dokumentu bat sinatzea, bertan ezarriko direlarik saria emateko baldintza espezifikoak.

Edizio honetan akzesitak edo aipamen bereziak txertatuko ditugu, hiru sari nagusietako batzuk lortu ez arren funtsezko arloetan ,berrikuntza, eragin soziala, jasangarritasuna eta abar, jardun aparta erakutsi duten proiektu nabarmenak aintzatesteko. Aipamen berezi horiek programaren barruan ekintzaile gehiagoren ahalegina, sormena eta konpromisoa ikusaraztea eta ospatzea dute helburu

Parte-hartzaileek epaimahaiak irabazleen hautaketari buruz hartutako erabakiak onartuko dituzte.

Parte hartzen duten proiektu guztiei programaren amaiera-ziurtagiria emango zaie.

9. PERTSONA HAUTATUEN KONPROMISOAK PROGRAMAREKIN

BBK EKIN programan parte hartzeak eta lankidetzaren eta mentorizazio-eskubide guztiak lortzeak konpromiso zorrotzak eskatzen dizkie proiektu hautatuei:

1. **Proiektuari dedikazioa:** Beharrezkoa da astean sei-zortzi ordu sartzea lau hilabetez proiektua garatzen. Gainera, mentoretza-hitzarmena sinatu behar da, programari hasiera emateko hasierako konpromiso gisa.
2. **Bertaratzeko konpromisoa:** Programaren barruan eskainitako saio eta tailer birtualetan % 100eko bertaratzeari (ezinbesteko arazo baten ondorioz justifikatuta dagoenean izan ezik), baita eskainitako jarraipen-jardueretan ere, prozesu osoan zehar gutxienez pertsona bat egongo dela ziurtatuz.
3. Adostutako **ekintza-plana** inplementatzea eta identifikatutako funtsezko metrikak lortzeari lehentasuna ematea.
4. Bilakaeraren eta lortutako mugarren (sortutako enplegu, diru-sarrera, inbertsio, jasotako sari eta abarren) berri ematea BBK EKIN taldeari bi urtera arte, programa amaitu ostean sei hilabetean behin, bere programarekin sortutako eragin edo inpaktuaren benetako garrantzia neurtzeko.

10. PROGRAMAREN KONPROMISOAK PERTSONA HAUTATUEKIN

BBK EKIN programak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Proiektu hautatu bakoitzerako **inkubazio-kudeatzaile** bat esleitzea.
2. Ordu eta laurdeneko zortzi saio ematea, gure adituetako batek emandako zortzi inkubazio-modulu-tako bakoitzean sakontzeko; horrek laguntza-geruza gehigarri bat emango du, eta bertan modulu bakoitzari buruzko ezagutza sakona eta ikaskideekin harremanetan jartzeko aukera jasoko dute.
3. BBK EKIN sareko mentore edo aholkulariekin konektatzea ekintzaileak.
4. Ekintzailetzako ekosistemaren ekitaldietara eta BBK Ekin barruan antolatutako beste ekitaldi batzuetara gonbidatzea proiektuetako kideak.
5. Proiektu parte-hartzaileei zabalkundea ematea.
6. Mundu osoko milaka ekintzaile eta aholkularik osatutako komunitate batera sarbidea ematea bizitza guztirako. Komunitate globalean, astero albiste garrantzitsuak, inbertsio-aukerak, coaching-zirkuluak, adituak, aholkulari edo mentoreak eta abar ezagutu ahal izango dituzte ekintzaileek.
7. Ekintzaileei programaren amaieran laburpen exekutibo bat sortzen laguntzea, eta beren proiektuak inbertitzaileei eta interesa duten beste eragile batzuei aurkezteko erabili ahal izango dute hori.

8. Ekintzaileek landutako modulu bakoitzari buruzko informazio guztia deskargatu ahal izango dute.
9. Programa osteko *alumni* jarraipena, bere programarekin sortutako inpaktuaren benetako garrantzia neurtzeko.

Proiekturen bat ez bada espero ziren helburuak lortzen ari bere aldetik dedikaziorik ez izateagatik edo hartutako konpromisoak ez betetzeagatik, Hautaketa Batzordeak inkubazio-prozesutik proiektutik kanporatzea erabaki ahal izango du.

11. KONFIDENTZIALTASUNA ETA JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK

BBK EKIN programara aurkezten diren proiektuen edukia, baita ematen den dokumentazio eta informazio guztia, edozein motatakoa dela ere, konfidentziala, isilpekoa eta mugatua izango da, eta BBK EKINek eta Hautaketa Batzordeko kideek horrela tratatuko dituzte. Proiektu parte-hartzaileek, arau orokor gisa, onartzen dute Hautaketa Batzordeak proiektuaren oinarritzko datuak erabiltzea Oinarri hauetan jasotako ebaluazio- eta hautaketa-prozesuetan zehar.

Proiektu parte-hartzaileek bermatu behar dute programara beren borondatez ekarritako lanek eta edukiek (laburpenak edo aurkezpenak barne) ez dituztela hirugarrenen eskubideak urratzen edo, hala badagokio, programa honetan parte hartzeko behar diren baimen guztiak dituztela; ez direla ez iraingarriak, ez laidogarriak; ez dutela indarkeria eta arrazismoa bultzatzen; eta ez dituztela urratzen ez oinarritzko eskubideak, ez aplikagarria den araudiak aitortutako askatasun publikoak, ez haurren eta gazteen babesari buruzkoak; ez direla pertsona fisikoen intimitate pertsonal edo familiarrean sartzen, ezta hirugarrenen ohorerako eskubidea edo komunikazioen sekretua urratzen ere; eta ez direla indarrean dagoen araudiaren aurkakoak ere. Era berean, aurkeztutako proiektuek hizkuntzaren eta irudi-tratamenduaren erabilera ez-sexista bermatuko dute.

Era berean, proiektu parte-hartzaile bakoitzak baimena ematen dio BBKri bere izena erabiltzeko programarekin lotutako publizitate-materialean, Internet barne, inolako ordainik jaso barik.

Programaren esparruan egindako berrikuntza, patente edo garapen teknologikoen jabetza intelektuala talde sustatzaileak eratutako sozietatearena izango da.

12. LEGE-ALDERDIAK

Lege Oinarriak onartzea. BBK EKIN programan parte hartzeko arauak ezartzea da Oinarri hauen helburua. Programaren deialdian parte hartzeak esan gura du Oinarri hauek onartzen direla, salbuespenik eta baldintzarik gabe, baita BBK-k eta/edo Programa honetako Hautaketa eta Koordinazio Batzordeak horri buruz eman dezake(t)en edozein interpretazio-ebazpen ere.

Datu pertsonalak babestea.

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria - Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioak (IFK: G-48412720; helbidea: Kale Nagusia 19-21, 48001 Bilbao, Bizkaia) eta Bridge for Billionsek (IFK: B-87982351; helbide soziala: Huerta kalea 11, 1. solairua) tratatuko dituzte emandako datu pertsonalak, bai eta eskabidearekin batera aurkeztutako agirietan eta ekimen hori izapidetu bitartean sortutakoetan ere. 2 28014, Madril, tratamenduaren erantzunkide gisa, hautagaitza aztertu, ebaluatu eta izapidetzeko, eta, hala badagokio, programan benetan sartzeko eta haren jarraipena eta balorazioa egiteko beharrezkoak diren kudeaketak egiteko. Oinarri hauetan ezarritako kontratu-neurriak aplikatzeko tratamenduaren beharra da tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa. Zure datu pertsonalen tratamenduari edo datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, eramateko eta aurka egiteko eskubideari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, posta elektronikoz protecciondedatos@bbk.eus helbidera jo dezakezu. Zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, pribatutasun-politika espezifikoak kontsultatu ahal izango dituzu eskabideak aurkezteko formularioan.

Erantzukizunetik salbuestea. Talde sustatzailea da enpresa-proiektuaren kudeaketa eta administrazioagatik erantzule bakarra, eta, bereziki, beren proiektuen bidez hirugarrenen eskubideei eragindako edo eragin diezazkiekeen arau-hauste eta kalteengatik, eta kalte-ordaina emango die hirugarren ukitu horiei eta BBKri lege-oinarri hauetan ezarritako eta onartutako betebeharrak eta aitortzen egiazkotasunik edo zehaztasunik ezagatik eta/edo betebeharrak ez betetzeagatik sortutako kalte-galerengatik. BBK ez da atzerapenen edo hirugarrenei egotz dakizkiekeen beste edozein inguruabarren erantzule izango, parte-hartzeari edo programaren garapenari eragiten badiote. BBK-k ez du bere gain hartuko programan parte hartzeko dagoen sistemaren funtzionamenduaren aldi baterako erabilgarritasunik edo jarraitutasunik ezaren ondoriozko inolako kalte edo galerarik. BBK-k ez du bere gain erantzukizunik hartuko posta-zerbitzuetan edo telekomunikazio-sareetan izandako atzerapenengatik erregistroei, datu-bidalketei edo bestelakoei dagokienez. BBK-k programa aldatzeko edo bertan behera uzteko eskubidea izango du. BBK-k ez du bere gain erantzukizunik hartuko talde sustatzaileen datuak okerrak badira, eguneratuta ez badaude edo BBKrekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik haiekin harremanetan jartzerik ez badago.

Legeria eta jurisdikzioa. BBKren erabakia merkataritza-izaerakoa da, eta jurisdikzio-eskumena epaitegi eta auzitegi zibilena da. Enpresa-proiektuen ordezkariak, legokiekeen edozein foruri formalki uko eginez, berariaz jarriko dira Bilboko Justizia Auzitegien, honetarako eskudun direnen, mende, programa honen interpretazioaren edo betearazpenaren inguruan zuzenean edo zeharka sor daitekeen edozein auzi, desadostasun, arazo edo erreklamazio ebazteko.

13. HARREMANETARAKO

Edozein zalantza argitzeko edo programari buruzko informazio gehiago eskuratu gura izanez gero, BBK EKIN programaren webgunera (www.bbk.eus/eu/proiektuak/bbk-ekin/) jo daiteke edo mezu elektronikoko bat bidali helbide honetara: bbkekin@bbk.eus

Programari buruzko kexak kontuan hartu ahal izateko, idatziz aurkeztu beharko zaizkio BBKri, <http://www.bbk.eus> webgune korporatiboan dagoen "JAR ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN" atalaren bidez.